

Behaskane-Laphizketa

Aurkibidea

Udalerria: Behaskane-Laphizketa

Sarrera



Behaskane-Laphizketa Nafarroa Behereko Amikuze eskualdean kokatutako udalerria da. Aiziritze-Gamue-Zohazti eta Arberatze-Zilhekoa udalerriak ditu iparraldean; Donapaleu mendebaldean; Larribarre-Sorhapürü hegoaldean; eta Zuberoako Domintxaine-Berroeta udalerriarekin egiten du muga ekialdean.

- **Biztanleak:** 430
- **Euskaldunak:** %17,07

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**

- Zintak: **1**
- Pasarteak: **14**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika

Hizlariak

Dominique Chilindron (1931)



Behaskanen sortu zen eta bertan bizi izan da beti. Lau seme-alabaren aita. Laboraria. Mayie (Donapaleu, 1939) emaztearekin batera egin zitzaion elkarriketa Behaskanen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Bigarren mundu gerra I (LAP-001/002)

Alemanak Mayie-ren etxean izan ziren. Osabaren bila ari zirela oroitzen da oso txikia bazen ere. Ogia egiteko labean ezkutatu zen osaba, eta horri esker ezz zuten aurkitu.

2. Familiaren gorabeherak eta txikitako istorioa (LAP-001/003)

Pareko etxean jaio zen. "Etxeberri" abizena dutenei "etxe zahar izen berri" esaten zieten. Anaia txikia zelarik, lo zen bitartean gelako teilatua hautsi zen, eta zoladura indartsua izanik ez zen guztiz erori.

3. Bigarren mundu gerra II (LAP-001/004)

Behaskane "zone libre" zen, beraz Alemanak ez zuten haizu sartzea, baina sartzen ziren hala ere. zona libretik okupatura armak eta bestelakoak pasatzen zituzten. Dominique-k ez du izan emazteak bezain istorio tristerik. Ez zuten gose handirik pasatu. Oinarritzko produktuak lortzeko ticket-ak ematen zituzten

4. Errotak (LAP-001/005)

Hiru errota zeuden herrian baina deseginik daude. Amenduzen bada bat kontserbatzen dena. Lan handia egiten zen bertan. Lapurreta txikiak egiten zituzten errotazainek, ez baitziren zozoak. Egindako lanaren truke laka izeneko saria uzten zen.

5. Arotzak (Errementariak) (LAP-001/006)

Burdina eskuz lantzen zuten, eta baziren auzoan batzuk.

6. Lehenago eta oraingo bizia (LAP-001/007)

Lehenago askoz ere lan fisikoagoa egiten zen, ez zen Masajista edo Kine beharrik. Gaur egun dibertitu egiten dira lanean aritzeko orde. Lehenago lan asko egin beharra zen baina hala ere giro hobea zegoen auzoen artean. Mezatik landa elekan aritzen ziren.

7. Elkar arto-xuriketan ezagutu zuten (LAP-001/009)

Auzoan ezagutu zuten elkar, arto-xuriketan, jende asko biltzen zen eta mentura polita zen jendea ezagutzeko. Bakoitzean etxe desberdin baten ibiltzen ziren lanbide hortan. Laster 50 urte egingo dira ezkondu zirela.

8. Seme-alabak (LAP-001/010)

Hiru seme-alaba izan zituzten, semea eta bi alaba. Inguruan bizi dira denak. Semea euskalduna da baina besteak ez. Txikiak zirelarik frantsesez mintzatu zitzaizkien

9. Euskara (LAP-001/012)

Lehenago eskolan ezin zen euskaraz mintzatu. Frantsesez jakin gabe frantsesez hitz egin behar zuten. Euren izeba hasi zen eskoletan euskara sartzen.

10. Urrezko ezteiak (LAP-001/013)

Sinpleki ospatuko dute familiartekoekin. Oso laster pasatu dira 50 urteak, haizea bezala.

11. Baratzea (LAP-001/014)

Lasai-lasai bizi dira orain. Baratzean aritzen da pixka bat Dominique. Gelditzen duenean segida izan nahiko luke. Tomateak, piperrak, porruak eta lekak ereiten dituzte, esaterako. Auzoa laguntzen ere aritzen da Dominique.

12. Etxeko esplotazioa: behiak eta artoa (LAP-001/015)

Etxean behiak eta artoa zituzten, ardirik ez. Artoa hazitarako egiten zuten. Ganaduaren prezioa ez da asko igo aspaldian. Arto hazkuntza asko emendatu da. Aitzurraz lantzen zen lehenago lurra, eta arto landareen bitartetan babak landatzen ziren.

13. Otea eta eihaurtzea (LAP-001/016)

Segarekin ote mozten aritzen zen Dominique. Ganaduaren azpiak egiteko erabiltzen zuten. 20 bat urte badira lanbide horri utzi ziotela. Auzoko mutikoak laguntzen zion gogotik baserriko lanetan. Azpiak egiteari Eihaurtzea deitzen zaio. Ikuluko ximaurra ondoren alorrera ateratzen zen.

14. Morroiak eta etxeko giroa (LAP-001/017)

Etxeetan baziren gutxienez pare bat morroi, bata handia eta bestea txikia. Oso gutxi kobratzen zuten. Askoz ere jende gehiago zen etxean, bi bikote gehienetan. Lehenago pazientzia gehiago zegoen elkarrenganako.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com